# Euskadiko Ekintzailetzaren Erakundearteko Planaren (2024 EEP ) 2021eko balantze-txostena

**2022ko maiatza**

---

EUSKADI BASQUE COUNTRY

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ORAIN Es futuro

EUDEL EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

## EDUKIA:


**1. LABURPEN EXEKUTIBOA........................................................ 2**

**2. EUSKAL EKINTZAILETZAREN EGOERA 2021 ALDIAN ........................ 3**

2.1 Ekintzailetza 3

2.2 Ekintzailearen profila 6

**3. 2024 EEP-AREN 2021EKO AURRERAPENA ........................................ 7**

3.1 Ekintzailetzaren Euskal Legean jasotako helburuetan eginiko aurrerapena 9

3.2 Aurrekontuaren aurrerabidea 10

3.3 Adierazleen aginte-koadroa 11

3.4 EEP 2024ko ardatz bakoitzean zenbat egin den aurrera 13

**4. ERANSKINA........................................................................ 23**

4.1 Eusko Legebiltzarrak EEP 2024ren inguruan egin duen ebazpena 23

## 1. LABURPEN EXEKUTIBOA

**“2021eko Jarraipen Txosten”** hau **2024ko Ekintzailetzarako Erakundearteko Planaren** lehengoa da. Plana iaz sartu zen indarrean. Proiektu ekintzaile berriak sortzea **lehentasuna izan da Euskadirentzako** ekonomia-jarduera berria sortzea **azkartuko duen ezinbesteko abiapuntu** gisa, eta testuinguru hori islatzen du.

Horregatik, ekintzailetzaren euskal ekosistemako eragile publiko eta pribatu desberdinek kolektibo ekintzaileen esku utzi dituzte **ekintzailetzari laguntzeko programa, ekimen eta tresna gero eta konplexu, zatitu eta sofistikatuagoak**, eta 2024ko EEP izan da jarduteko esparru estrategikoa.

Laburbilduz, 2021ean:

- **Ekintzailetzaren adierazle nagusiak ugaritu egin ziren berriro ere, pandemia aurreko zenbakietara heldu ziren** eta Euskadi Europako herrialde aurreratuen antzeko mailan jarri zen jarduera ekintzaileari dagokionez.
- **Jarduera ekintzailea:** Euskadiko ekonomiak izan duen suspertzearekin batera, **2021ean**, **joera positiboa** izan zen Euskadin sortu ziren enpresa berrien kopuruari dagokionez. **Ekintzailetza Osoaren Tasa** (% 5,2) nabarmendu zen, Euskadiko 2017an zuen jarduera ekintzailetzaren mailatik hurbil kokatu baitzen, eta herrialde eta eskualde garatuetako mailatik hurbil, edo are gorago, esaterako Alemaniatik.
- **Ekintzailearen profila:** Beste urte batez, ekintzaileak helduak eta trebeak zirela berretsi zen. Pertsona kualifikatuak, ekintzailetzan aritzeko beharrezko gaitasunak zituztenak, baina porrota izateko beldur handiagoa zutenak. Beharra izan zen ekintzailetzarako arrazoi nagusia, eta horrek agerian uzten du pandemiaren eragina, azken urteetan aukera izan baitzen arrazoi nagusia.
- **Euskadiko 2024ko EEP Ekintzailetzaren Erakundearteko Planaren aurrerapena:**
    - <u>Aurrekontu-betearazpena:</u> 2021ean, **hasieran onartu zen aurrekontuaren % 100,23** erabili zuten (73,34 milioi euro onartu ziren eta 73,51 milioi erabili) eragile publikoek ekintzailetzari laguntzeko programa eta ekintzentzat, 2024ko EEParen lau ardatzetan oinarrituz. Hala izan zen (aurrerago zehaztuko dugun moduan) aurreikusitako jardueren kopuru oso altua gauzatu zelako eta hainbat programa eta funtsen aurrekontua igo egin zelako, eskari handia baitzegoen. Beste programa eta ekintza batzuek, aldiz, aurreikusitakoa baino aurrekontu baxuagoa izan dute, jarduera ekintzailearen dinamika naturala dela eta. 2013tik, aurrekontu-betearazpenaren ehunekoa % 90 ingurukoa izan da.
    - <u>Programen eta ekimenen aurrerapena:</u> 2024ko **EEPko 770 ekimen eta ekintza baino gehiago** plangintzan zehaztutakoaren arabera jarri ziren martxan kasu gehienetan. Gainera, lankidetza proiektu berriak jarri ziren martxan, hala nola, **Euskal Ekosistemako Aholkularitza Kontseilua eta Euskal Ekosistemaren Mapa berria**. Hurrengo orrietan, ekintza eta aldaketa esanguratsuenak nabarmenduko dira.

Jarraian, xehetasunez azalduko dira **2021eko adierazle horiek eta 2024 EEParen inguruan Eusko Legebiltzarrak onartu zituen xedapenei emandako erantzunarekin osatutako eranskina ere**. Hori guztia Euskadiko ekintzailetzaren ekosistema osatzen duten eragile publiko eta pribatuen gardentasuna eta ebaluazio partekatua egiteko ekintzaren parte da.

## 2. EUSKAL EKINTZAILETZAREN EGOERA 2021 ALDIAN

Jarraian, **2024 EEPa indarrean izan den lehen urtean euskal ekintzailetzak egin dituen aurrerapen nagusiak** xehetasunez aurkeztuko dira.

### 2.1 Ekintzailetza

Ekonomia bateko ekintzailetza-jarduera prozesu globaltzat har daiteke, honakoak barne hartzen dituena: ideiaren sorrera edo ekiteko asmoa, enpresa sortzea eta azeleratzea, sendotzea eta proiektua uztea edo eskualdatzea.

Hona hemen ekintzailetza neurtzeko **adierazle nagusiak**:

1. Pertsona autonomoen alta (iturria: Gizarte Segurantza).
2. Enpresa berrien sorrera (iturria: EIN).
3. Enpresen sorrera garbia (iturria: Confebask).
4. Ekintzailetza osoaren tasa (TEA) eta proiektu ekintzaileen biziraupen-tasak (GEM txostenak neurtuak).

Horiek guztiak Ekintzailetzaren Erakunde arteko Mahaiak aldizka ebaluatutako adierazleak dira, eta 2021i dagozkion datuak aurkeztuko ditugu jarraian, pandemiaren ostean susperraldia izaten ari dela erakusten duten zantzuak erakutsiz.

a) Autonomo berriak

Alta eman duten autonomoen kopurua igo egin zen 2021ean, baina ez zen pandemia aurreko kopuruetara heldu. **22.738 autonomok eman zuten alta guztira Euskadin**, eta 2017-2019 aldian urtean batez beste 27.000 autonomo izan ziren.

2021 amaieran, autonomoen kopuru osoa 169.484 pertsonara heldu zen, hau da, ordura arte 2020ko martxoaren eta apirilaren artean galdu ziren autonomoen % 56 berreskuratu zen.

**1. irudia. Euskadin alta emanda dauden autonomoak**
Autonomoen alta-kopurua Gizarte Segurantzan; 2006-2021 aldia




**UHTK: urtez urteko hazkunde-tasa konposatua. Iturria: EIN*

b) Enpresa berriak

**2021ean, 3.137 enpresa sortu ziren guztira** eta % 20,5eko hazkundea izan zen 2020arekin alderatuta. Beraz, susperraldiaren zantzu argiak izan ziren, pandemiak azken urteen sortzen ziren **3.000-3.100** enpresaren joera apurtu baitzuen.

**2. irudia. Euskadin sortutako enpresak**
Enpresa-kopurua; 2006-2021




**UHTK: urtez urteko hazkunde-tasa konposatua. Oharra: sortutako enpresen kopuruaren barnean daude sozietate anonimoak, mugatuak, kolektiboak eta komanditarioak. Iturria: EIN*

c) Enpresen sorrera garbia

Euskadiko enpresen kopurua hazi egin zen 2021ean, eta 58.145 enpresa zeuden aktibo guztira. 2021eko azken hiru hilabeteak izan dira urteko produktiboenak enpresen sorrerari dagokionez; 736 sortu ziren. Horri esker, urtea 623 enpresaren saldo positiboarekin itxi zen, eta 2007az geroztik erregistratzen den **bigarren kopururik onena** da.

**3. irudia. Enpresen dinamismoa. Enpresen alten eta bajen saldo garbia**
Enpresa-kopurua; 2008-2021




*Iturria: Confebask, Gizarte Segurantzaren datuetatik abiatuta*

2021 amaieran, Gizarte Segurantzan inskribatutako 58.145 enpresa zeuden, 2020ko otsailean baino % 1,3 gutxiago soilik, baina **2020ko apirilean baino ia 1.400 gehiago.**

**4. irudia. Gizarte Segurantzan inskribatutako enpresak**
Enpresa-kopurua; 2008-2021




*Iturria: Confebask, Gizarte Segurantzaren datuetatik abiatuta*

d) <u>Ekintzailetzaren ezaugarriak azken GEM txostenaren arabera</u>

GEM txostenak aukera ematen du Euskadiko ekintzailetzaren egoera ikuspegi globaletik balioztatzeko, herrialdeen artean aldera litezkeen ekintzailetzaren adierazleak ezartzen baititu. Ekintzailetza Osoaren Tasak (TEA indizea) adierazten du **euskal populazioaren % 5,2 ibili zela azken urtean negozio berri bat abian jartzeko edo kudeatzeko lanetan**, eta beraz, **2018ko maximoaren** ondoren, aurreko bi urteetako jaitsiera-dinamika hautsi du.

Nazioarteko alderaketari dagokionez, **Euskadi hainbat herrialde garaturen gainetik** egon zen, esaterako Alemaniaren gainetik (% 4,8) eta Nafarroa (% 5,2) edo Madril (% 5,8) bezalako erkidegoen gainetik.

**5. irudia. TEA indizearen bilakaera**
TEA (Ekintzailetza Osoaren Tasa) ehunekoa; 2004-2021




*Iturria: Azken GEM txostena*

TEA indizea zehatzago aztertuta, nabarmengarria da:

- **Ekintzailetza ez berritzailea** izan zen nagusi (% 67,2).
- **Produktu edo zerbitzu berritzailea duten enpresen hazkundea** (+% 13,8).
- Abiarazitako negozioen uzte-tasa % 1 jaitsi zen aurreko urtetik eta hala, **itxieren tasa garbia % 0,7koa izan zen**.
- Aurreikusten da proiektuen % 59k **lanpostu berriak sortzea datozen urteetan.**
- Hasierako faseko enpresen **batez besteko neurria enplegatutako 2 pertsonakoa** izan zen. % 51ek 0 eta 5 enplegatu artean ditu, eta % 10ek 6 eta 19 artean.
- Euskadiko barne-ekintzailetzaren tasa **% 0,4koa izan zen**.

## 2.2 Ekintzailearen profila

Jarraian, Euskadiko ekintzailearen ezaugarri nagusiak laburbiltzen dira, EAErako azken GEM txosteneko datuetan oinarrituta.

**6. irudia. Ekintzailearen profila**




*Iturria: GEM EAE*

- Euskadiko batez besteko ekintzaileak 40 urte ditu, eta prestakuntza maila altua edo oso altua.
- Ekintzailetzarako ezagutzak eta gaitasunak dituela uste duten herritarren ehunekoa mantendu egin da (% 50).
- Bat-batean jaitsi da ekintzailetzarako aukerak daudela uste dutenen pertzepzioa (% 16,5 eta iaz % 40,1).
- Porrot egiteko beldurra % 65,6 igo da.
- "Lan-faltagatik, bizimodua ateratzea" da ekintzailetzarako arrazoi nagusia, (% 70,3) eta hurrengo arrazoia honako hau da: "orokorrean desberdina den zerbait egiteko" (% 34,1).
- Inguruan jende ekintzailea ezagutzen duten pertsonen tasa jaitsi egin da, % 42tik % 35era.
- Bigarren Hezkuntzako edo goi mailako ikasketak dituzten ekintzaileen ehunekoa igo egin da (2007-2019 arteko batezbestekoa % 82koa zen, eta azken urtekoa % 93koa).

Azkenik, **emakume ekintzaileen kolektiboaren pisua igo egin da** aurreko bi urteetako batezbestekoarekin alderatuta. Aztertutako azkeneko aldian, ekintzaileen % 47,6 ziren emakumeak, eta aurreko bi urteetan, batez beste, % 42.

## 3. 2024 EEP-AREN 2021EKO AURRERAPENA

Kapitulu honetan 2024 aldirako Ekintzailetzarako Erakundearteko Planak aldi horretan egindako aurrerapena ebaluatuko dugu. Lau eduki-bloke aurkeztuko ditugu:

1. **Euskal Ekintzailetzaren Legearen helburuak betetzeko egin diren aurrerapenak.**
2. **Planaren aurrekontu-betearazpenaren aurrerapena**.
3. **Planeko adierazleen aginte-koadroko emaitzak**. Ikuspegi osoa eskaintzen du, batetik, laguntzarako ekosistemaren jardunari buruz, eta bestetik, ekintzailetzako jarduera eta jokabideak aintzat hartuta duen inpaktuari buruz. Sartuta daude laguntzarako euskal ekosistemaren jarduerari buruzko adierazleak eta inpaktuaren adierazleak.
4. **EEP 2024ren ardatz bakoitzean nabarmendutako programak eta ekimenak.** Planaren bederatzi ardatzetako bakoitzaren gauzatze-aurrerapena laburbildu dugu, honako hauek nabarmenduta:
    - Aurrerapena planifikatutakoaren arabera doa aurrez ikusitako 776 proiektu eta programa gehienetan, (EEP 2024ean xehetasunez ageri dira) pandemia izan den arren.
    - Ekimen eta eragile berriak txertatu dira, publikoak, pribatuak eta publiko-pribatuak, eta horrek erakusten du euskal ekosistemak baduela dinamismoa, baduela testuingurura egokitzeko gaitasuna, eta oro har, ekintzailetzarekiko gero eta interes handiagoa dutela erakunde, ekonomia eta gizarte arloko eragile ugarik.
        - Adibidez, Euskadiko udalak eta haien garapenerako agendak nabarmentzen dira. 2021ean, 350 ekintzatik 99 ekintza berri jarri dira abian eta 4,35 milioi euroko aurrekontua izan dute (aurreko aldian baino % 31 gehiago).
    - Lankidetza da EEP 2024ko eragile sustatzaileek jarduteko filosofia. 2021ean gauzatu ziren ekintzen % 90 inguru bi sail, erakunde edo eragilerekin edo gehiagorekin egin dira lankidetzan, diseinatzeko, finantzatzeko, gauzatzeko eta/edo ebaluatzeko. Eta gainera hainbat proiektu komun nabarmen egin dira, hala nola:
        - Euskal ekosistemaren aholkularitza-kontseilua: 2021eko uztailean ekintzailetzaren euskal ekosistemaren aholkularitza-kontseilu publiko-pribatua sortu zen. Eusko Jaurlaritzak gidatzen du, eta instituzioen, eragile pribatuen eta gizarte zibilaren partaidetza du, ekintzailetzaren euskal ekosistemaren ordezkari gisa. Ekintzailetzaren ekosistemaren egoerari eta etorkizunari buruzko interakziorako eta hausnarketarako foro azkar eta egonkorra da.

          Funtzio hauek ditu: ekintzailetzaren euskal ekosistemako eragileen dibertsitateari ahotsa ematea; ekosistemaren egoeraren eta aurreikuspenen inguruan gogoeta egitea; joera, aldaketa eta praktika on interesgarriak hautematea; gero eta ekosistema konplexu, dinamiko eta erakargarriagoa sustatzea; eta ekosistemako eragileen eta baliozko beste eragile eta sistema batzuen arteko lankidetza sustatzea. Kontseilua urtero bilduko da.
        - Euskal ekosistemaren mapa:

Ekosistemaren eta bere eboluzioaren ikuspegi orokorra errazten duen tresnarik izatearen arazoari aurre egiteko, eta ezarritako politiken eragin erreala ikusarazteko sortu da ekintzailetzaren euskal ekosistemaren mapa.

Up! Plataforma berria. Euskadik baliozko informazioa eransten dio, eta ikusgarritasuna ematen die startupei eta Ekosistemako eragile guztiei, Euskadi ekintzailetza aurreraturako Hub gisa kokatuz.

Hurrengo orrietan, ardatz bakoitzaren helburu estrategia gogoraraziko dugu, adierazle bereizgarriak aztertu eta programarik esanguratsuenetako batzuk aurkeztuko ditugu.

## 3.1 Ekintzailetzaren Euskal Legean jasotako helburuetan eginiko aurrerapena

Ondorengo taula honetan ikusten den moduan, 2024 aldirako Ekintzailetzarako Erakundearteko Planak, bere ardatz, jarduera-ildo eta neurrien bidez, lagundu du Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiei Laguntzeko 16/2012 Legeak planteatutako helburu ia guztietan **aurrerapen maila altua edo oso altua** izaten. Hala ere, badira oraindik ere EEP 2024ko eragile sustatzaileak lantzen ari diren etorkizuneko erronkak.

| LAEPE helburuak | EEP 2024– 2021eko balantzea | | | 2021eko aurrerakina | Etorkizuneko erronkak |
|---|---|---|---|---|---|
| | Ardatzak | 2021eko ekintza nabarmenak | 2021eko adierazleak | | |
| Enpresak sortzen lagunduko duen esparru ekonomiko bat sustatzea | 6<br>7<br>9 | - Ekintzailetzari laguntzeko neurri fiskal berriak | - 24 milioi euro ekintzailetzarekin zuzenean lotutako kenkari, salbuespen eta gainerako neurri fiskaletan. | Altua | - Ekintzailetzarako beharrezkoak diren berdintasuna, kohesioa eta segurtasuna izango dituen testuinguru baten berme iraunkorra.<br><br>- Zaintza Estatuko eta europako lege-esparruaren bilakaeraren aurrean |
| Pertsona ekintzaileei laguntzeko dauden politikak koordinatzea | 6<br>7<br>9 | - EEP 2024 partaidetzaz prestatzea eta onartzea<br><br>-EEPren gobernantza-eredua indartzea<br><br>- Euskal ekosistemaren Aholkularitza Kontseilua sortzea | - Eusko Jaurlaritzako 7 sail, 3 foru-aldundi eta EUDEL, erakunde arteko Mahaian ordezkatuta.<br>- Erakunde arteko koordinaziorako 14 bilera (Mahaia + Kontseilua) | Ertaina | - Eragin hirukoitzaren eta lagundutako proiektuen trazabilitatearen ebaluazioak eta neurketak orokortzea.<br><br>- Ekintzaileta-proiektuen errotazioa/hilkortasuna kudeatzea |
| Enpresen sorrera eta hazkundea sustatzen laguntzea | 1<br>2<br>3<br>5<br>8 | - Ekintzaileei laguntzeko programa ugari<br><br>-BIND 4.0<br><br>-BIND SME Connection | -2.342 enpresa sortu dira dekretuen laguntzarekin<br><br>- 33 kontratu sortu dira ekintzailetzako proiektuen eta finkatutako enpresen artean BIND4.0ren bidez | Altua | - Ekintzailetza berdinzale eta homogeneoaren aldeko apustua<br><br>- Bultzada trantsizio hirukoitzari |
| Pertsona ekintzaileen jarduerak finantzatzen laguntzea | 4 | - Jaiotzeko, abiatzeko, hazteko eta sendotzeko potentziala duten proiektuei finantzaketa eta inbertsioa eskuratzeko alternatiba multzoa | -27.197.476 euro enpresa ekintzaileei tresna publikoen bidez laguntzeko<br><br>- 202 enpresa tresna publikoen partaidetzarekin | Altua | - Finantzaketarako eta inbertsiorako erabilgarri dauden iturri eta mekanismo guztiak ikusgarri egitea<br><br>- RIS3 arloetan espezializatutako funts eta kapital pribatuak erakartzea. |
| Finantzaketa-ildoen sorrera sustatzea | 4 | - Hitzarmenak Elkargirekin<br><br>- Tresna eta eragile pribatu berriak | | Altua | - Koinbertsio publiko pribatua<br><br>- Euskadin inbertsioaren eta finantzaketaren sektorea profesionalizatzea eta egituratzea. |
| Giza kapitala, talentua eta sormena indartzen laguntzea | 1<br>2<br>3<br>8 | - Giza kapital ekintzailea prestatzeko programen multzoa, bereziki hezkuntza-etapa guztietan | - 4.336 lagunek jaso dute ekintzailetzarako prestakuntza | Altua | -Ekosisteman behar diren profil profesional berrien eskaintzaren eta eskaeraren konexioa<br><br>- Belaunaldien arteko erreleboari laguntzea, ekintzailetza eta ehunaren gaztetzea bultzatzeko palanka gisa. |
| Talentuaren iritsiera sustatzea | 1<br>2<br>4<br>9 | - BIND 4.0<br>- Bizkaia Talent<br>- Gipuzkoa Talent<br>- Talentu ekintzailea erakartzeko beste programa batzuk | - 96 OTEBB erakarri dira Euskadira (2016-2020 datuak) | Ertaina | -Pertsona ekintzaileak erakartzea eta haiekin trukeak egitea<br><br>- RIS3 arloko profesionalak erakartzea |
| Zerbitzu bakoitzaren errentagarritasuna eta kalitatea identifikatuko duten adierazle komunen koadro bat sortzea | 6<br>7 | - EEP aginte-koadroa | - EEPren aginte-koadroko 39 adierazleak neurtzeko 2021eko eguneraketa (ikusi xehetasunak urteko balantzearen txostenean) | Altua | Ekosistemari buruzko informazioaren kudeaketa aurreratua |

## 3.2 Aurrekontuaren aurrerabidea

2021ean, EEP 2024aren aurrekontuak hazkundea izan du **aurreko urteekin alderatuta.** 2020rekin alderatuta, onartu den aurrekontua % 23 altuagoa izan da eta esleitutakoa % 29,2.

**7. irudia. Ekintzailetzari laguntzeko aurrekontu publikoaren urteko bilakaera**
M€; 2017-2021




*Iturria: EEPean parte hartu duten eragile publikoak. Aurrekontua kentzeagatik aurreko txostenetatik doitutako datuak*

Aipagarria da, 2021ean **hasieran onartutako aurrekontuaren % 100,3 gauzatu** zela ekintzailetzari laguntzeko programa eta ekintzetarako. Esleitutako aurrekontua 73,51 eurokoa izan zen eta aurretik onartu zena 73,34 milioi eurokoa.

**8. irudia. EEP 2024ren bederatzi jarduera-ardatzei lotuta planifikatutako eta esleitutako aurrekontua**

| Jarduera-ardatzak | Onartutako aurrekontua, 2021 | Esleitutako aurrekontua, 2021 |
|---|---|---|
| 1. EKINTZAILETZAREN KULTURA ETA BALIOAK | 2.778.432 € | 3.363.201 € |
| 2. GIZA KAPITALAREN GAITZEA ETA KONEXIOA | 7.614.494 € | 6.742.472 € |
| 3. EKINTZAILETZARAKO IDEIEN ITURRIAK | 20.640.147 € | 19.001.813 € |
| 4. FINANTZAKETA eta INBERTSIOA | 10.006.000 € | 11.472.595 € |
| 5. MERKATURAKO SARBIDEA | 4.152.570 € | 6.629.964 € |
| 6. LAGUNTZARAKO PROZESU, ZERBITZU eta PROGRAMAK | 17.295.635 € | 15.224.245 € |
| 7. ZERGA SISTEMA eta ARAUDI ERRAZTAILEAK | - €* | - €* |
| 8. AZPIEGITURA ADIMENDUNAK | 6.230.256 € | 6.513.996 € |
| 9. POSIZIONAMENDUA ETA EKOSISTEMA INDARTZEA | 269.825 € | 204.195 € |
| * UDALAK eta GARAPEN-AGENTZIAK | 4.354.581 € | |
| | 73.341.940 € | 73.507.062 € |

** Aurrekontu espezifikoa ez dago sartuta, jardueren izaera dela-eta.*

*Iturria: EEPean parte hartu duten eragile publikoak.*
**Ekintzailetza sustatzeko EAEko udalek eta garapen-agentziek 2021ean gauzatutako ekintza guztien aurrekontu agregatua (iturria: EUDEL - Garapen, ez dago EEPren ardatzen arabera banakatuta).*

Jarduera-ardatzen arabera, aurrekontu handiena izan duten ardatzak hauek dira: 3. ardatza “Iturriak eta ideiak”; 6. ardatza “Laguntzarako zerbitzuak eta programak”; 4. ardatza “Finantzaketa”.

## 3.3 Adierazleen aginte-koadroa

EEP 2024k 39 adierazle ditu bi kategoriatan sailkatuta: jarduera eta inpaktua.

1. Jarduera: 2021ean, hamahiru adierazlek hobetu zituzten aurreko urteko zifrak eta covidaren aurreko datuetara hurbildu ziren edo baita hobetu ere.

**9. irudia. JARDUERAREN adierazleen aginte-koadroa, 2013-2021**

| | JARDUERAREN adierazleak | 13-16 batezbesteko neurketa | 2017ko neurketa | 2018ko neurketa | 2019ko neurketa | 2020ko neurketa | 2021eko neurketa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. ardatza | Eusko Jaurlaritzak edo Foru Aldundiek finantzatutako ekintzailetza-sariek mobilizatutako proiektu-kopurua. | 372 | 583 | 336 | 405 | 446 | **571** |
| | Eusko Jaurlaritzak edo Foru Aldundiek finantzatutako enpresa-senaren aitorpenerako sari-kopurua | 19 | 44 | 66 | 54 | 44 | **60** |
| 2. ardatza | Eragile publikoen bidez ekintzailetzaren gaineko oinarrizko prestakuntza jaso duen pertsona-kopurua | *2017an definitutako adierazle berria* | 2.474 | 2.788 | 3.026 | 1.372 | **2.588** |
| | Eragile publikoen bidez ekintzailetzaren gaineko prestakuntza aurreratua jaso duen pertsona-kopurua. | | 2.785* | 2.962* | 2.975 | 1.781* | **1.748** |
| | Enpresen transmisioa bultzatzen duten jardueren kopurua | 4 | 6 | 4* | 5 | 4 | **7** |
| 3. ardatza | Dekretuen laguntzaz sortutako enpresa eta enpresari indibidualen kopurua | 2.956 | 2.745 | 2.799 | 2.592 | 2.267 | **2.342** |
| | Barneko ekintzailetzarako programetan parte hartzen duten enpresen kopurua | 51 | 86 | 93 | 48 | 90 | **107** |
| 4. ardatza | Finantzaketarako eta inbertsiorako tresna publiko nagusiek enpresa ekintzaileei laguntzeko bideratutako ondarearen eta zorroaren zenbatekoa (€) | *2017an definitutako adierazle berria* | 18.241.414 | 22.937.142 | 24.606.079 | 29.813.634 | **27.197.476** |
| | Finantzaketarako eta inbertsiorako tresna publiko nagusiek partaidetzak dituzten enpresen kopurua | | 183 | 162* | 187* | 175 | **202** |
| 5. ardatza | BIND4.0 programaren bidez Euskadin proiektu ekintzaileek egindako kontratuen eta sortutako enpresen kopurua | | 40 | 44 | 53 | 40 | **33** |
| 6. ardatza | Eragile publikoen bidez egindako kontsulten kopurua | 8.133 | 8.549 | 7.459* | 7.092 | 5.838 | **6.349** |
| | Eragile publikoen aholkularitza jaso duten proiektuen kopurua | 4.392 | 4.588 | 4.391* | 4.473 | 3.355 | **3.563** |
| | Eragile publikoen laguntzaz egindako bideragarritasun-planen kopurua | 3.133 | 3.097 | 3.180 | 2.909 | 2.264 | **2.181** |
| | Hazkundea eta lehiakortasuna bultzatzen duten jardueren kopurua | 30 | 26 | 28 | 29 | 34 | **42** |
| | Espainian enpresa bat modu indibidualean altan emateko behar diren egunen kopurua (Munduko Bankua) | 16 | 13 | 13 | 13 | *Datua argitaratzearen zain* | |
| 7. ardatza | EAEn ekintzailetzari laguntzeko eguneratutako arauen edo arau berrien kopurua (fiskalak edo ekintzailetzaren ekosistemari laguntzen dioten beste arlo batzuetakoak) | *2017an definitutako adierazle berria* | 3 | 3 | 1 | 5 | **2** |
| 8. ardatza | Inkubazioari laguntzeko azpiegitura publiko nagusiek inkubatutako enpresen kopurua** | | 151** | 123** | 120** | 117** | **142**** |
| | Urtean zehar inkubazioari laguntzeko azpiegitura publiko nagusiek hartutako enpresa berrien kopurua | | 35 | 32* | 38 | 15 | **45** |
| | Urtean zehar inkubazioari laguntzeko azpiegitura publiko nagusietan haien egonaldia amaitu duten enpresen kopurua | | 33 | 24* | 20 | 26 | **17** |
| 9. ardatza | Euskadiko Ekintzailetzaren Erakundearteko Planaren testuinguruan egindako erakundearteko bileren kopurua | 17 | 34 | 14* | 16 | 10 | **14** |

**Datu doitua Iturria: EEP 2020an parte hartu duten eragile publikoak; GEM EAE, EIN, Gizarte Segurantza eta jasotako informazioaren arabera eginiko estimazioak. **Berrikuste-prozesuan dagoen adierazlea*

2. Inpaktua. Azken urtean, hobekuntza nabarmena izan da hainbat adierazletan, esaterako, enpresen eta pertsona autonomoen altan.

**10. irudia. INPAKTUAREN adierazleen aginte-koadroa 2013-2021**

| INPAKTUAREN adierazleak | | 13-16 batezbesteko neurketa | 2017ko neurketa | 2018ko neurketa | 2019ko neurketa | 2020ko neurketa | 2021eko neurketa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. ardatza | Datozen 6 hilabeteetan ekiteko aukerak jasoko dituzten pertsona ez-ekintzaileen %, generoaren arabera (GEM) | % 20,9 (Emakumeak: % 19,7, Gizonak: % 22,9) | % 28,3 (Emakumeak: % 25,1, Gizonak: % 31,5) | % 27 (Emakumeak: % 24,6, Gizonak: % 29,4) | % 39,6 (Emakumeak: % 36,8, Gizonak: % 42,3) | **% 16 (Emakumeak: % 15,1, Gizonak: % 16,8)** | *GEM EAE berria argitaratzearen zain* |
| | Porrot egiteko beldurra ekintzailetza hasteko oztopoa dela uste duten pertsonen % (GEM) | % 46,7 (Emakumeak: % 51,7, Gizonak: % 45,8) | % 42,4 | % 42,7 | % 55,9 | **% 66** | |
| 2. ardatza | 5 langiletik gorako negozio ekintzaileen % (GEM) | % 7,0 | % 6,9 | % 1,4 | % 1,1 | **% 9,7** | |
| | Ekintzailetza-proiektu bat martxan jartzeko beharrezko gaitasunak dituztela uste duten pertsonen % (GEM) | % 42,5 | % 40,7 | % 44,8 | % 50 | **% 50** | |
| 3. ardatza | Ekintzailetza-tasa guztira, generoaren arabera (GEM) | Guztira: % 3,4 (Emakumeak: % 2,9, Gizonak: % 3,7) | Guztira: % 5,8 (Emakumeak: % 4,7, Gizonak: % 6,8) | Guztira: % 5,1 (Emakumeak: % 4,6, Gizonak: % 5,6) | Guztira: % 4,7 (Emakumeak: % 4,1, Gizonak: % 5,2) | **Guztira: % 5,2 (Emakumeak: % 5,0, Gizonak: % 5,5)** | |
| | Aukerak eta beharrak bultzatutako ekintzailetza-proiektuen % (GEM) | Aukera: % 71,8 Beharra: % 26,6 Beste batzuk: % 1,7 | Aukera: % 76,5 Beharra: % 21,7 Beste batzuk: % 1,7 | Aukera: % 72,7 Beharra: % 23,2 Beste batzuk: % 4,1 | **GEM txostenaren ikuspegi berria** | | |
| | Euskadin altan emandako autonomoen kopuruaren bilakaera (aurreko urtearekiko %) (Gizarte Segurantza) | +% 5,4 | - % 8,9 | + % 8,0 | - % 11,8 | - % 17,2 | **+% 9,2** |
| | Euskadin sortutako merkataritzako enpresen (anonimoak eta mugatuak) kopuruaren bilakaera (aurreko urtearekiko %) (EIN) | +% 1,0 | - % 4,2 | % 3,9 | + % 0,6 | - % 15,8 | **+% 20,5** |
| | Azken hiru urteetan barne-ekintzailetzako jardueraren bat egin duten langileen % (GEM) | % 2,2 | % 1,5 | % 1 | % 2 | **% 0,4** | GEM EAE berria argitaratzearen zain |
| | Barne-ekintzailetzako proiekturen batean parte hartzen duten langileen % (GEM) | % 4,9 | GEM txostenean neurtu gabeko datua | | | | |
| 4. ardatza | Ekintzaileak berak jartzen duen hazi-kapitalaren % (GEM) | % 64,5 | % 45,8 | % 58 | % 58,7 | **% 36,9** | |
| 5. ardatza | Nazioarteko orientazioa duten enpresen % (GEM) | % 21,1 | % 25,2 | % 24,2 | % 21,5 | **% 19,4** | |
| | Bezero batzuentzat edo guztientzat berria den produktua edo zerbitzua eskaintzen duten negozio ekintzaileen % (GEM) | % 33,2 | % 44,3 | % 35 | % 29 | **% 32,8** | |
| | Lehiakiderik gabeko edo lehiakide gutxiko negozio ekintzaileen % (GEM) | % 42,1 | % 44,3 | % 55,3 | GEM txostenaren ikuspegi berria | | |
| 6. ardatza | Duela urtebete aholkularitza jaso ondoren sortutako enpresen kopurua eta urtebeteren buruan martxan jarraitzen duten enpresen kopurua, enpresak eta autonomoak bereizita. | Enpresak: % 90,9 Autonomoak: % 86,1 | Enpresa: % 93 Autonomoak: % 89 | Enpresa: % 96 Autonomoak: % 87,6 | *Enpresa: % 98,4 Autonomoak: % 84,9 | *Enpresa: % 93 Autonomoak: % 88,6 | **Enpresa: % 93,2 Autonomoak: % 88,6** |
| | Duela 3 urte aholkularitza jaso ondoren sortutako enpresen kopurua eta 3 urteren buruan martxan jarraitzen duten enpresen kopurua, enpresak eta autonomoak bereizita. | Enpresak: % 85,0 Autonomoak: % 74,6 | Enpresa: % 78 Autonomoak: % 80 | Enpresa: % 88,4 Autonomoak: % 79 | *Enpresa: % 88,6 Autonomoak: % 71,2 | *Enpresa: % 81,3 Autonomoa: % 81,6 | **Enpresa: % 85,9 Autonomoak: % 85,8** |
| | Finkatutako enpresen jabeak diren herritarren % (soldaten ordainketa 42 hilabetetik gorako tartean) (GEM) | % 7,0 | % 5,6 | % 5,8 | % 7,6 | **% 5,8** | GEM EAE berria argitaratzearen zain |

**Berrikusteko dagoen adierazlea Iturria: EEP 2020an parte hartu duten eragile publikoak; GEM EAE, EIN eta Gizarte Segurantza.*

## 3.4 EEP 2024ko ardatz bakoitzean zenbat egin den aurrera

Jarraian, Planeko ardatz bakoitzean 2021ean izan diren aurrerapenak, adierazle eta berrikuntza nagusiak eta aurrekonturik handieneko programak nabarmenduko ditugu.

### 1. ardatza. Ekintzailetzaren kultura eta balioak

***Helburu estrategikoa***: gizarteko eta bizitzako etapetako maila guztietan ekintzailetzaren kultura eta balioak sustatzea, eta, horretarako, herritarrek ekintzailetza etorkizunerako aukera erakargarria dela pentsa dezaten ziurtatzea.

***Funtsezko adierazleak:***

2021ean, aurrekontua onartutakoa baino % 21 handiagoa izan zen. Desberdintasun handienak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta IHOBEren programetan daude.

**1. ardatza: Betetze mailaren adierazleak, 2021**




*Iturria: EEPean parte hartu duten eragile publikoak*

Ekintzailetzarako konpetentziaren osagai diren pentsamendu kritikoa, ekimena, sormena, taldeko lana, erabakiak hartzeko eta arazoak konpontzeko gaitasuna presente daude ikasleekin egiten diren hezkuntzako esku-hartzeetan.

Sentsibilizaziorako jarduerak ekintzailetzaren kultura sustatzeko hainbat programa espezifiko, ekintzailetzaren eta enpresen **sariak**, **ekitaldiak** eta inpaktuaren jardunaldiak eta **komunikabideen** eginkizuna (baita blogena, webguneena edo sare sozialena ere, besteak beste) hartzen ditu. Ekintzaileen aitortza hobetzeko ekintzak, GEM EAEren azken txostenaren arabera hobetzeko arloa izaten jarraitzen baitu oraindik ere.

**1. ardatza: Jardueraren eta inpaktuaren adierazleak**

| JARDUERAREN adierazleak | 13-16 batezbesteko neurketa | 2017ko neurketa | 2018ko neurketa | 2019ko neurketa | 2020ko neurketa | 2021eko neurketa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Eusko Jaurlaritzak edo Foru Aldundiek finantzatutako ekintzailetza-sariek mobilizatutako proiektu-kopurua | 372 | 583 | 336 | 405 | 446 | **571** |
| Eusko Jaurlaritzak edo Foru Aldundiek finantzatutako enpresa-senaren aitorpenerako sari-kopurua | 19 | 44 | 66 | 54 | 44 | **60** |

| INPAKTUAREN adierazleak | 13-16 batezbesteko neurketa | 2017ko neurketa | 2018ko neurketa | 2019ko neurketa | 2020ko neurketa | 2021eko neurketa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Datozen 6 hilabeteetan ekiteko aukerak jasoko dituzten pertsona ez-ekintzaileen %, generoaren arabera (GEM) | % 20,9 (Emakumeak: % 19,7, Gizonak: % 22,9) | % 28,3 (Emakumeak: % 25,1, Gizonak: % 31,5) | % 27 (Emakumeak: % 24,6, Gizonak: % 29,4) | % 39,6 (Emakumeak: % 36,8, Gizonak: % 42,3) | **% 16 (Emakumeak: % 15,1, Gizonak: % 16,8)** | *GEM EAE berria argitaratzearen zain* |
| Porrot egiteko beldurra ekintzailetza hasteko oztopoa dela uste duten pertsonen % (GEM) | % 46,7 (Emakumeak: % 51,7, Gizonak: % 45,8) | % 42,4 | % 42,7 | % 55,9 | **% 66** | |

*Iturria: EEPean parte hartu duten eragile publikoak; GEM EAE, EIN eta Gizarte Segurantza*

| 2021EKO EKINTZA NABARMENAK | Eragilea |
|---|---|
| Ekonomia zirkularraren berrikuntzarako programa. | DDESMA – IHOBE – Ekonomia Zirkularra |
| Enpresari | Bizkaiko Foru Aldundia, Enplegua |
| Egin eta Ekin | Bizkaiko Foru Aldundia, Ekonomiaren Sustapena |

Nabarmendu behar da **toki mailan** udalek eta tokiko agentziek 84 ekintza sustatu dituztela, ekintzailetzaren kultura eta balioak sustatzeko; hau da, udalerrien ekimen guztien % 21.

## 2. ardatza. Giza kapitalaren gaitzea eta konexioa

***Helburu estrategikoa***: Giza kapital ekintzailearen gaitzea indartzea, bereziki, hezkuntzako etapa guztietan, eta ekintzailetza-aukera berriekiko erakarpena, kontratazioa, mugikortasuna, interakzioa eta konexioa bultzatzea.

***Funtsezko adierazleak:***

2021ean, onartutako aurrekontuaren % 88,5 esleitu zen. Aurrekontuaren % 78 hiru programak hartzen dute: Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Saileko **Lehen Aukerak**; Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomia Zuzendaritzaren **Gazteen Prestakuntza Ekonomia Sozialean** eta **Bazkide Berriak** programek; eta IHOBEko **Basque Ecodesign Hub 1ek.** Nabarmendu behar da erreferentziazko hainbat programen jarraipena ere, hala nola gazteak lan munduan sartzeko **Gaztenek** programa edo Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu sailaren Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzak kudeatutako **Emakumeen ekintzailetzarako dirulaguntza** berria.

**2. ardatza: Betetze mailaren adierazleak, 2021**




*Iturria: EEPean parte hartu duten eragile publikoak*

2017-2019 aldian, 5.000 pertsonak baino gehiagok jaso zuten ekintzailetzaren oinarrizko prestakuntza edo prestakuntza aurreratua. 2020an kopurua 3.000ra murriztu zen arren, 2021ean 4.336era heldu da.

Emaitza gisa, GEM EAE azken txostenaren arabera, Euskadik badu populazio gaitu bat, ekintzailetzako proiektu bat abian jartzeko trebeziak badituela uste duena.

**2. ardatza: Jardueraren eta inpaktuaren adierazleak**

| JARDUERAREN adierazleak | 13-16 batezbesteko neurketa | 2017ko neurketa | 2018ko neurketa | 2019ko neurketa | 2020ko neurketa | 2021eko neurketa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Eragile publikoen bidez ekintzailetzaren gaineko oinarrizko prestakuntza jaso duen pertsona-kopurua | *2017an definitutako adierazle berria* | 2.474 | 2.788 | 3.026 | 1.372 | **2.588** |
| Eragile publikoen bidez ekintzailetzaren gaineko prestakuntza aurreratua jaso duen pertsona kopurua | | 2.785* | 2.962* | 2.975 | 1.781* | **1,748** |
| Enpresen transmisioa bultzatzen duten jardueren kopurua | 4 | 6 | 4* | 5 | 4 | **7** |

| INPAKTUAREN adierazleak | 13-16 batezbesteko neurketa | 2017ko neurketa | 2018ko neurketa | 2019ko neurketa | 2020ko neurketa | 2021eko neurketa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 langiletik gorako negozio ekintzaileen % (GEM) | % 7,0 | % 6,9 | % 1,4 | % 1,1 | **% 9,7** | *GEM EAE berria argitaratzear en zain* |
| Ekintzailetza-proiektu bat martxan jartzeko beharrezko gaitasunak dituztela uste duten pertsonen % (GEM) | % 42,5 | % 40,7 | % 44,8 | % 50 | **% 50** | |

**Datu doitua Iturria: EEPean parte hartu duten eragile publikoak; GEM EAE, EIN eta Gizarte Segurantza*

| 2021EKO EKINTZA NABARMENAK | Eragilea |
|---|---|
| Lehen Aukera | Lana eta Enplegua EJ |
| Gazteen prestakuntza ekonomia sozialean | Ekonomia Sozialeko Zuzendaritza EJ |
| Basque Ecodesign Hub 1 | DDESMA - IHOBE |
| Bazkide Berriak | Ekonomia Sozialeko Zuzendaritza EJ |

Udalerrietan, udalek eta tokiko eragileek planteatu zituzten ekintzailetzaren laguntzarako **72 ekintza** kokatu ziren ardatz honetan, eta bigarren ardatz nagusia izan zen ekintzen kopuruari dagokionez.

## 3. ardatza. Ekintzailetzarako iturriak eta ideiak

***Helburu estrategikoa***: Masa kritikoa eta “kala” eta iturri desberdinetan sortutako ideia eta egitasmo berrien kalitatea areagotzea, kolektibo ekintzaile bakoitzaren behar espezifikoei arreta jarriz.

***Funtsezko adierazleak:***

3. ardatzerako onartu zen aurrekontua izan zen altuena EEPren ardatz guztietatik, eta agerian utzi du **ekintzailetzaren hasierako faseetan laguntza emateko** dagoen apustu publikoa. 2021ean, onartutako aurrekontuaren % 92 esleitu zen.

**3. ardatza: Betetze mailaren adierazleak, 2021**




*Iturria: EEPean parte hartu duten eragile publikoak*

Aurrekontu-ahalegina zenbait eragile publikoren artean banatu zen. Eragile horiek **ekintzailetzarako iturriak eta ideiak sortzen laguntzeko 36 programa inguru garatu zituzten zenbait sektore eta kolektibotan**.

Aurrekontuaren % 50 Eusko Jaurlaritzaren hiru programak hartu zuten: Lana eta Enplegua Saileko **enpleguaren eskualdeetako planen barruan enpresak sortzen laguntzeko ekintzak**; Ekonomia Sozialeko Zuzendaritzaren **Ekonomia Sozialaren Ekintzailetzak**; eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren **Lehiabidek.**

**Barnekintzaile programaren berrikuntza eta sustapena** nabarmendu behar dira. Programa horrek barne-ekintzailetza sustatzen du Euskadiko enpresen barruan, enpresen proiektu berritzaile eta/edo teknologian oinarritutakoak, industrialak eta/edo produktu-prozesu industrialarekin lotutako zerbitzuak sustatzeko.

**3. ardatza: Jardueraren eta inpaktuaren adierazleak**

| JARDUERAREN adierazleak | 13-16 batezbestekeo neurketa | 2017ko neurketa | 2018ko neurketa | 2019ko neurketa | 2020ko neurketa | 2021eko neurketa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Dekretuen laguntzaz sortutako enpresa eta enpresari indibidualen kopurua | 2.956 | 2.745 | 2.799 | 2.592 | 2.267 | **2.342** |
| Barneko ekintzailetzarako programetan parte hartzen duten enpresen kopurua | 51 | 86 | 93 | 48 | 90 | **107** |
| **INPAKTUAREN adierazleak** | **13-16 batezbesteko neurketa** | **2017ko neurketa** | **2018ko neurketa** | **2019ko neurketa** | **2020ko neurketa** | **2021eko neurketa** |
| Ekintzailetza-tasa guztira, generoaren arabera (GEM) | Guztira: % 3,4 (Emakumeak: % 2,9, Gizonak: % 3,7) | Guztira: % 5,8 (Emakumeak: % 4,7, Gizonak: % 6,8) | Guztira: % 5,1 (Emakumeak: % 4,6, Gizonak: % 5,6) | Guztira: % 4,7 (Emakumeak: % 4,1, Gizonak: % 5,2) | **Guztira: % 5,2 (Emakumeak: % 5,0, Gizonak: % 5,5)** | *GEM EAE berria argitaratzearen zain* |
| Aukerak eta beharrak bultzatutako ekintzailetza-proiektuen % (GEM) | Aukera: % 71,8 Beharra: % 26,6 Beste batzuk: % 1,7 | Aukera: % 76,5 Beharra: % 21,7 Beste batzuk: % 1,7 | Aukera: % 72,7 Beharra: % 23,2 Beste batzuk: % 4,1 | 2019ko GEM txostenaren ikuspegi berria | **2019ko GEM txostenaren ikuspegi berria** | |
| Euskadin altan emandako autonomoen kopuruaren bilakaera (aurreko urtearekiko %) (Gizarte Segurantza) | +% 5,4 | - % 8,9 | + % 8,0 | - % 11,8 | **- % 17,2** | **+% 9,2** |
| Euskadin sortutako merkataritzako enpresen (anonimoak eta mugatuak) kopuruaren bilakaera (aurreko urtearekiko %) (EIN) | +% 1,0 | - % 4,2 | % 3,9 | + % 0,6 | **- % 15,8** | **+% 20,5** |
| Azken hiru urteetan barne-ekintzailetzako jardueraren bat egin duten langileen % (GEM) | % 2,2 | % 1,5 | % 1 | % 2 | **% 0,4** | *GEM EAE berria argitaratzearen zain* |
| Barne-ekintzailetzako proiekturen batean parte hartzen duten langileen % (GEM) | % 4,9 | GEM txostenean neurtu gabeko datua | | | | |

*Iturria: EEPean parte hartu duten eragile publikoak; GEM EAE, EIN eta Gizarte Segurantza*

| 2021EKO EKINTZA NABARMENAK | Eragilea |
|---|---|
| Enpresak sortzeko laguntzak - enpleguaren eskualdeetako planak | Lana eta Enplegua EJ |
| Gizarte Ekonomian ekitea | Ekonomia Soziala EJ |
| Lehiabide | DDESMA EJ |

## 4. ardatza. Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea

***Helburu estrategikoa***: Jaiotzeko, abiatzeko, hazteko eta sendotzeko potentziala duten proiektuei finantzaketa eta inbertsioa eskuratzeko alternatibak eskaintzea.

***Funtsezko adierazleak:***

2021ean aurrekonturik handiena izan zuen hirugarren ardatza. Esleitutako aurrekontua onartutakoa baino % 15 handiagoa izan zen, **Seed Capital Bizkaiaren** eskaria handitu egin zelako batik bat.

Eragile publikoen babesaz gain, ardatz honetan finantzaketa- eta inbertsio-tresna ezberdinetan gauzatutako hainbat ekimen pribatu ere nabarmentzen dira, baita Business Angels bezalako figurak ere.

**4. ardatza: Betetze mailaren adierazleak, 2021**




*Iturria: EEPean parte hartu duten eragile publikoak*

**4. ardatza: Jardueraren eta inpaktuaren adierazleak**

| JARDUERAREN adierazleak | 13-16 batezbesteko neurketa | 2017ko neurketa | 2018ko neurketa | 2019ko neurketa | 2020ko neurketa | 2021eko neurketa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Finantzaketarako eta inbertsiorako tresna publiko nagusiek enpresa ekintzaileei laguntzeko bideratutako ondarearen eta zorroaren zenbatekoa | *2017an definitutako adierazle berria* | 18.241.414 | 22.937.142 | 24.606.079 | 29.813.634 | **27.197.476** |
| Finantzaketarako eta inbertsiorako tresna publiko nagusiek partaidetzak dituzten enpresen kopurua | | 186 | 162* | 187* | 175 | **202** |

| INPAKTUAREN adierazleak | 13-16 batezbesteko neurketa | 2017ko neurketa | 2018ko neurketa | 2019ko neurketa | 2020ko neurketa | 2021eko neurketa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Ekintzaileak berak jartzen duen hazi-kapitalaren % (GEM) | % 76 | % 45,8 | % 58 | % 58,7 | % 36,9 | *GEM EAE berria argitaratzearen zain* |

**Datu doitua Iturria: EEPean parte hartu duten eragile publikoak; GEM EAE*

| 2021EKO EKINTZA NABARMENAK | Eragilea |
|---|---|
| Seed Capital Bizkaia | Bizkaiko Foru Aldundia, Ekonomiaren Sustapena |
| Ekintzaile | DDESMA EJ |
| LEADER | DDESMA EJGV – HAZI-MENDINET |
| Ekin Araban | Arabako Foru Aldundia, Ekonomia Garapena, Berrikuntza eta Demografia Erronka |

## 5. ardatza. Merkaturako sarbidea

***Helburu estrategikoa***: Proiektu ekintzaileei merkatuan sartzeko eta “lehenengo bezeroak” izateko aukerak eskaintzea, bereziki, RIS3 etorkizuneko sektoreetan potentzial handiena duten proiektuei.

***Funtsezko adierazleak:***

2021ean esleitutako aurrekontua onartutakoa baino % 59,7 handiagoa izan zen.

Batez ere **Industria Digitala** programaren esleipen handigoarengatik izan zen hori, aurrekontua handitzea eta hasieran onartutakoa baino gehiago esleitzea lortu baitzuen. **BIND 4.0**en 6. edizioa ere nabarmengarria izan zen.

**5. ardatza: Betetze mailaren adierazleak, 2021**




*Iturria: EEPean parte hartu duten eragile publikoak*

BINDen kasuan, 2016-17tik 200 kontratu baino gehiago egin dira proiektu ekintzaileen (130 startup) eta egonkortutako Euskadiko enpresen artean, eta orain arte 7 milioi euro baino gehiago fakturatu dira.

Gainera, **BIND SME Connection** txertatu da, industriaren kluster dinamizatzaileekin eta erreferentziazko ETEkin lankidetzan aritzen den ekimen publiko-pribatua. Programa honek hiru helburu nagusi ditu: lehiakortasunaren hobekuntza sustatzea eta Euskadiko ETE industrialak eraldatzea startupekin egindako lankidetzaren bitartez, (berrikuntza irekia) eta startupei merkaturako sarbidea erraztea, egonkortutako ETE industrialen egungo erronkei erantzuteko proiektuekin.

**5. ardatza: Jardueraren eta inpaktuaren adierazleak**

| JARDUERAREN adierazleak | 13-16 batezbesteko neurketa | 2017ko neurketa | 2018ko neurketa | 2019ko neurketa | 2020ko neurketa | 2021eko neurketa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| BIND4.0 programaren bidez Euskadin proiektu ekintzaileek egindako kontratuen eta sortutako enpresen kopurua | *2017an definitutako adierazle berria* | 40 | 44 | 53 | 40 | **33** |
| **INPAKTUAREN adierazleak** | **13-16 batezbesteko neurketa** | **2017ko neurketa** | **2018ko neurketa** | **2019ko neurketa** | **2020ko neurketa** | **2021eko neurketa** |
| Nazioarteko orientazioa duten enpresen % (GEM) | % 21,1 | % 25,2 | % 24,2 | % 21,5 | **% 19,4** | *GEM EAE berria argitaratzean zain* |
| Bezero batzuentzat edo guztientzat berria den produktua edo zerbitzua eskaintzen duten negozio ekintzaileen % (GEM) | % 33,2 | % 44,3 | % 35 | % 29 | **% 32,8** | |
| Lehiakiderik gabeko edo lehiakide gutxiko negozio ekintzaileen % (GEM) | % 42,1 | % 44,3 | % 55,3 | GEM txostenaren ikuspegi berria | | |

*Iturria: EEPean parte hartu duten eragile publikoak; GEM EAE*

| 2021EKO EKINTZA NABARMENAK | Eragilea |
|---|---|
| Industria Digitala | Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila |
| BIND 4,0 | Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila |
| Urratsbat enpresa-sarea | Lanbide Heziketako Sailburuordetza EJ |

## 6. ardatza. Laguntzarako prozesu, zerbitzu eta programak

***Helburu estrategikoa***: Laguntzeko dauden prozesu, programa eta zerbitzuak herritar ekintzaileen beharretara egokitzea erakundeen arteko eta arlo publiko-pribatuaren arteko koordinazioaren eta elkarlanaren bidez.

### *Funtsezko adierazleak:*

Seigarren ardatzak izan du bigarren aurrekonturik handiena; % 88a hartu du. 2021ean, hainbat programa egin dira. Programa horiek ekintzailetzaren hasierako prozesua, eta proiektuen hazkunde eta sendotze-faseak hartzen dituzte, transmisioaren edo txandaren fasera arte.

**6. ardatza: Betetze mailaren adierazleak, 2021**




*Iturria: EEPean parte hartu duten eragile publikoak*

Aurten, programa berri hauek nabarmendu dira: **enpresen arteko txanda eta transmisioa** sustatzeko programa berriak (Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sailaren “Enpresen Transmisioa”; eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Turismoa eta Landa Ingurunea Saileko “Jarraipena”); **ekintzailetza zirkularra** sustatzekoak (“ETE programa zirkularra” IHOBErena eta “Ekonomia Zirkularra” Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Turismoa eta Landa Ingurunearen Sailarena); edo **balio sozial partekatua** sortzekoak (“Garapen Jasangarria”, aurretik aipatutako azken eragilearena). Baita Euskadiko elikaduraren, zuraren eta lurralde-garapenaren **balio-katearen ekintzailetzarako eta berrikuntzarako** ONEKIN atari berria ere (Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Industria Saila).

Azkenik, nabarmendu behar da Ekintzailetzaren euskal sistemak, bere **sarbide-puntuen** bidez (BICak, Merkataritza Ganberak, autoenplegurako sarbide-puntuen sarea, Tknika sarea, udalak, garapen-agentziak, etab.), **2021ean 6.349 kontsulta jaso zituela guztira, 3.563 proiektutan eskaini zuen aholkularitza eta 2.181 bideragarritasun-plan egiten lagundu zuen**.

**6. ardatza: Jardueraren eta inpaktuaren adierazleak**

| JARDUERAREN adierazleak | 13-16 batezbesteko neurketa | 2017ko neurketa | 2018ko neurketa | 2019ko neurketa | 2020ko neurketa | 2021eko neurketa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Eragile publikoen bidez egindako kontsulten kopurua. | 8.133 | 8.549 | 7.459* | 7.092 | 5.838 | **6.349** |
| Eragile publikoen aholkularitza jaso duten proiektuen kopurua | 4.392 | 4.588 | 4.391* | 4.473 | 3.355 | **3.563** |
| Eragile publikoen laguntzaz egindako bideragarritasun-planen kopurua | 3.133 | 3.097 | 3.180 | 2.909 | 2.264 | **2.181** |
| Hazkundea eta lehiakortasuna bultzatzen duten jardueren kopurua | 30 | 26 | 28 | 29 | 34 | **96** |
| Espainian enpresa bat modu indibidualean altan emateko behar diren egunen kopurua (Munduko Bankua) | 16 | 13 | 13 | 13 | *Datua argitaratzearen zain* | |
| **INPAKTUAREN adierazleak** | **13-16 batezbesteko neurketa** | **2017ko neurketa** | **2018ko neurketa** | **2019ko neurketa** | **2020ko neurketa** | **2021eko neurketa** |
| Duela urtebete aholkularitza jaso ondoren sortutako enpresen kopurua eta urtebeteren buruan martxan jarraitzen duten enpresen kopurua, enpresak eta autonomoak bereizita | Enpresak: % 90,9 Autonomoak: % 86,1 | Enpresa: % 93 Autonomoak: % 89 | Enpresa: % 96 Autonomoak: % 87,6 | *Enpresa: % 98,4 Autonomoak: % 84,9 | *Enpresa: % 93 Autonomoak: % 88,6 | **Enpresa: % 93,2 Autonomoak: % 88,6** |
| Duela 3 urte aholkularitza jaso ondoren sortutako enpresen kopurua eta 3 urteren buruan martxan jarraitzen duten enpresen kopurua, enpresak eta autonomoak bereizita | Enpresak: % 85,0 Autonomoak: % 74,6 | Enpresa: % 78 Autonomoak: % 80 | Enpresa: % 88,4 Autonomoak: % 79 | *Enpresa: % 88,6 Autonomoak: % 71,2 | *Enpresa: % 81,3 Autonomoa: % 81,6 | **Enpresa: % 85,9 Autonomoak: % 85,8** |
| Finkatutako enpresen jabeak diren herritarren % (soldaten ordainketa 42 hilabetetik gorako tartean) (GEM) | % 7,0 | % 5,6 | % 5,8 | % 7,6 | **% 5,8** | *GEM EAE berria argitaratzearen zain* |

**Datu doitua Iturria: EEPean parte hartu duten eragile publikoak; GEM EAE, Munduko Bankua*

| 2021eko ekintza nabarmenak | Eragilea |
|---|---|
| Autoenplegua | Bizkaiko Foru Aldundia, Enplegua Saila |
| Ekarpena eta BEAZ hitzarmena | Bizkaiko Foru Aldundia, Ekonomiaren Sustapena |
| Hitzarmena Gipuzkoako Merkataritza Ganberarekin | Gipuzkoako Foru Aldundia – Ekonomia Sustapena, Turismoa eta Landa Ingurunearen Departamentua |

## 7. ardatza. Zerga-sistema eta araudi erraztailea

***Helburu estrategikoa***: Tresna fiskalak eta arau-tresnak eguneratzea ekintzailetza-lanari oztopoak kentzeko, eta hala, Euskadi, garapen fiskalean eta araudi-garapenean erreferente bihurtzeko.

### *Funtsezko adierazleak:*

**2021ean,** Euskadin ekintzailetza sustatzen jarraitzeko neurri fiskal berriak onartu dira (ikusi xehetasunak hurrengo orrian).

Berrikuntza horiek Euskadiko Foru Aldundiek azken urteetan **ekintzailetzari laguntzeko fiskalitatea eta araudia eguneratzeko eta berritzeko** egindako ahalegina berresten dute

Nolanahi ere, aipatu behar da fiskalitatean eta araudian aldaketak egiteko egin diren lanen izaera ez dela islatzen EEP 2024ko ohiko aurrekontuan eta balantzearen urteko txostenetan.

Azkenik, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak egindako ikerketa baten kalkuluen arabera, **ekintzailetzarekin zuzenean lotzen diren eta Euskadiko Ogasunek PFEZ eta Sozietateen gaineko Zergetan ezartzen dituzten kenkariek, salbuespenek eta gainerako neurri fiskalek 24 milioi euroko gastua** izan zuten guztira 2020an (eskuragarri dagoen azken ikerketako datuak).

**7. ardatza: Jardueraren adierazleak**

| JARDUERAREN adierazleak | 13-16 batezbesteko neurketa | 2017ko neurketa | 2018ko neurketa | 2019ko neurketa | 2020ko neurketa | 2021eko neurketa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| EAEn ekintzailetzari laguntzeko eguneratutako arauen edo arau berrien kopurua (fiskalak edo ekintzailetzaren ekosistemari laguntzen dioten beste arlo batzuetakoak) | *2017an definitutako adierazle berria* | 3 | 3 | 1 | 5 | **2** |

*Iturria: EEPean parte hartu duten eragile publikoak*

## 2021eko berrikuntza fiskalak

**2021ean ekintzailetza sustatzeko onartu ziren** eta 2022ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu ziren **aldaketa fiskalak** hauek dira:

**Bizkaia**: Abenduaren 13ko 6/2021 Foru Araua, ekonomiaren berraktibazioa sustatzeko, BATUZ sistemaren ezarpen boluntarioa bultzatzeko eta beste aldaketa zergadunak egiteko neurriak arautzen dituena onartu zen; neurri hauek jasotzen dira bertan:

- **Hirugarrengoek ekintzailetzan inbertsioa egiteagatik kenkaria handitzea**: Errentari eta sozietateei dagokienez, berriki sortu diren ETEetan edo mkiroenpresetan inbertsioa egitegatik kenkaria handitzen da. Egun %20koa izatetik % 35era igo da ETE eta mikroenpresa berritzaileetan, zilarrezko ekonomian edo *Silver Economyn* sartuta daudenetan, eta adineko pertsonen sektoreak egin eta eskatu dituen eta eragin ekonomiko eta sozialetik datozen aukeretan. Horretarako OCDE edo Europar Batasuna bezalako nazioarteko organismo edo erakundeek erabiltzen dituzten kontzeptuei jarraitu zaie. Gainerako kasuetan, % 10etik % 25era igo da.
- **Ekintzailetzarekin lotuta dauden ordainketen tratamendua**: Errentan, enpresaren balioaren bilakaerarekin lotuta dauden ordainsarien fiskalitatea arautzen da eta normalean enpresa ekintzaileko langileekin batera adosten da, ordainsari horiei dagokienez, zergarik ordaindu ez dadin balioa handitzetik eratorritako zenbatekoak jaso arte, orduan ikusten baita gaitasun ekonomiko eraginkorra, eta horrekin jarduera horretarako egitura artifizialak sortzea eragozten baita.

**Araba**: Ekonomiaren berraktibazioa sustatzeko, TicketBAI ezartzeko eta beste zergapen neurri batzuk ezartzen dituen abenduaren 23ko 34/2021 Foru Arauaren bitartez.

- **Hirugarrengoek ekintzailetzan inbertsioa egiteagatik kenkaria handitzea**: Errentari eta sozietateei dagokienez, berriki sortu diren ETEetan edo mikroenpresetan inbertsioa egitegatik kenkaria handitzen da. Egun %20koa izatetik % 35era igo da ETE eta mikroenpresa berritzaileetan, zilarrezko ekonomian edo *Silver Economyn* sartuta daudenetan eta adineko pertsonen sektoreak egin eta eskatu dituen eta eragin ekonomiko eta sozialetik datozen aukeretan. Horretarako, OCDE edo Europar Batasuna bezalako nazioarteko organismo edo erakundeek erabiltzen dituzten kontzeptuei jarraitu zaie. Gainerako kasuetan, % 10etik % 25era igo da.

## 2021eko arauaren berrikuntzak

EEP 2024an aurreratu dugun moduan, 2021eko uztailean "Enpresen sorkuntzarako eta hazkunderako Legearen Aurreproiektua" (Gai Ekonomiko eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioa) eta "Enpresa berrien ekosistema sustatzeko Legearen aurreproiektua" (zortzi Ministeriok hartu dute parte) onartu ziren.

## 8. ardatza. Azpiegitura adimendunak

***Helburu estrategikoa***: Proiektu berriak sortzen, ontzen, hazten eta finkatzen lagunduko duten azpiegitura adimendunak izatea.

***Funtsezko adierazleak:***

Azpiegitura adimendunei esleitu zaien aurrekontua 2021ean onartutakoa baino apur bat handiagoa da. Zehazki, onartutakoa baino % 4,6 gehiago esleitu zitzaion.

Ardatz honetan jasotzen da Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek, Udaletxeek eta Garapen Agentziek haien ekimenak garatzeko pertsonen eta proiektu ekintzaileen eskura jarri dituzten azpiegitura eta lehen mailako zerbitzuen sarearekin aurrekontuan egin duten ahalegina.

**8. ardatza: Betetze mailaren adierazleak, 2021**




*Iturria: EEPean parte hartu duten eragile publikoak*

**Euskadiko BICen sarearen** ahalegina nabarmendu behar da, enpresa berrien inkubazioa eta azelerazioa erraztu baitu, azpiegituraren osagarriak diren zerbitzuen multzoa eskainiz. Eta bestalde, 2021ean, Bizkaiko Foru Aldundiak **Ekintzailetzarako Nazioarteko Zentroa** abiarazteko egin duen ahalegina nabarmentzekoa da. Zentroaren asmoa nazioartean erreferentziazkoa izango den azpiegitura bihurtzea da.

2021ean, **142 enpresa inkubatu ziren** inkubazioan laguntzeko azpiegitura publiko nagusietan. **Urtean, batez beste, 45 enpresa berri izan ziren azpiegituretan eta 17 enpresak utzi zituzten azpiegiturak**. Horrek erakusten du azpiegitura horietako txandaketa.

**8. ardatza: Jardueraren adierazleak**

| JARDUERAREN adierazleak | 13-16 batezbestek o neurketa | 2017ko neurketa | 2018ko neurketa | 2019ko neurketa | 2020ko neurketa | 2021eko neurketa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Inkubazioari laguntzeko azpiegitura publiko nagusiek inkubatutako enpresen kopurua** | *2017an definitutako adierazle berria* | 151** | 123** | 120** | 117** | **142**** |
| Urtean zehar inkubazioari laguntzeko azpiegitura publiko nagusiek hartutako enpresa berrien kopurua | | 35 | 32* | 38 | 15 | **45** |
| Urtean zehar inkubazioari laguntzeko azpiegitura publiko nagusiak uzten dituzten enpresen kopurua | | 33 | 24* | 20 | 26 | **17** |

**Datu doitua Iturria: EEPean parte hartu duten eragile publikoak.**Berrikuste-prozesuan dagoen adierazlea.*

| 2021EKO EKINTZA NABARMENAK | Eragilea |
|---|---|
| Ekintzailetzarako nazioarteko zentroa | Bizkaiko Foru Aldundia, Ekonomiaren Sustapena |
| Espezializatutako inkubategien sarea / CEIS. BICak | Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila |
| BIC Bizkaia eta BIC Bizkaia Ezkerraldea | Bizkaiko Foru Aldundia, Ekonomiaren Sustapena |

## 9. ardatza. Posizionamendua eta ekosistema indartzea

***Helburu estrategikoa***: Euskadi “ekintzaileetzarako leku egoki” gisa posizionatzea bertako herritarren artean eta Estatuko nahiz nazioarteko beste ingurune batzuetan, eta gero eta laguntza-ekosistema osatuagoa, aktiboagoa, sinergikoagoa eta ezagunagoa izatea.

***Funtsezko adierazleak:***

EEPko bederatzi ardatzetatik aurrekontu txikieneko ardatza da, ekosistema indartzeko eta ekosistema nazioartean sustatzeko jardueren izaera dela-eta.

**9. ardatza: Betetze mailaren adierazleak, 2021**




*Iturria: EEPean parte hartu duten eragile publikoak*

Gainera, aipatu behar da beste ardatz batzuetan sartuta dauden ekintza askok ekarpen zuzena edo zeharkakoa egiten diotela ardatz honi. Beraien ikusgarritasunagatik eta Euskaditik kanpo duten eraginagatik, **BIND 4.0 ekimena, Ekintzaileetzarako Nazioarteko Zentroa edo Euskal Ekosistemaren Mapa berria nabarmendu ditzakegu.**

Nolanahi ere, ardatz horretarako 2021ean onartu zen aurrekontua % 76an esleitu zen. Aldea Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekosistema Ekintzailea programak eta Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren Adimen Lehiakorra programak sortu dute.

**9. ardatza: Jardueraren adierazleak**

| JARDUERAREN adierazleak | 13-16 batezbesteko neurketa | 2017ko neurketa | 2018ko neurketa | 2019ko neurketa | 2020ko neurketa | 2021eko neurketa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Euskadiko Ekintzaileetzaren Erakundearteko Planaren testuinguruan egindako erakundearteko bileren kopurua | 17 | 34 | 14* | 16 | 10 | **14** |

**Datu doitua Iturria: EEPean parte hartu duten eragile publikoak*

| 2021EKO EKINTZA NABARMENAK | Eragilea |
|---|---|
| Ekintzaileetzaren bilakaeraren azterketa- GEM | Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila eta Foru Aldundiak |
| Ekosistema ekintzailea | Gipuzkoako Foru Aldundia – Ekonomia Sustapena, Turismoa eta Landa Ingurunearen Departamentua |
| Adimen Lehiakorra | Lanbide Heziketako Sailburuordetza EJ |

## 4. ERANSKINA

### 4.1 Eusko Legebiltzarrak EEP 2024ren inguruan egin duen ebazpena

Jarraian, 2021eko ekinaren 28an EEP 2024ren inguruan Eusko Legebiltzarrean onartu ziren ebazpenak aurkeztuko ditugu eta bakoitzaren betekizunean orain arte egin diren aurrerapenak baloratu eta horren inguruko azalpena emango ditugu.

| Zb. | Eusko Legebiltzarraren ebazpena | Aurrerapenaren maila | Balorazio zehatza |
|---|---|---|---|
| **1** | Eusko Legebiltzarrak adierazi du **garapena sortzeko**, **ekonomia-jarduera** dinamizatzeko, eta **lanpostu** garbiak eta **aberastasuna** sortzeko tresna gisa garrantzitsua dela **ekintzailetza** Euskadiko gizarte osoarentzat, eta Eusko Jaurlaritzari eskatu dio hori gauzatzea ahalbidetuko duten ekimen guztiak ezartzea. | Oso altua | • EEPa ekintzailetza mota guztiak sustatzeko erakundeen arteko tresna gisa.<br>• Eusko Jaurlaritzako, Foru Aldundietako eta udaletako 14 sailen ahalegina dakar (EUDELen eta Garapenen bitartez).<br>• 9 ardatzetan egituratuta dauden 776 ekintza ditu eta 70,23 milioi euroko urteko aurrekontua.<br>• EEPak hau dio bigarren orrian: **”ekintzailetzak funtsezko abiapuntua izan behar du kalitatezko enplegua sortuko duen suspertze ekonomikorako**, eta erantzuna eman behar dio gure gizartearen **trantsizio hirukoitzari** –teknologiko-digitala, energetiko-ingurumenekoa eta demografiko-soziala–. |
| **2** | **Landaren ekintzailetza** sustatzea **lanerako aukera** bideragarri eta egonkor gisa. | Altua | • EEPk 3,4 milioi euro bideratzen ditu helburu horretara planeko katalogoan jasotzen diren 13 ekintzen bitartez.<br>• EJko Landa eta Kostaldearen Garapena eta Europako Politiken Zuzendaritzak (Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politika Sailburuordetzaren barruan) eta HAZIk hartu dute parte. Azken hori, arlo horretako proiektu estrategikoak koordinatu eta sustatzen dituen erakunde gisa.<br>• 3. ardatzak 17. jarduketa-ildoa txertatu du, “beste sektoreak” deiturikoa, eta sektore honetara bideratutako ekintzak hartzen ditu kontuan, esaterako, elikaduraren katea eta landa-eremua.<br>• EEPak kontuan izan du bere araudiaren esparruan Euskadiko Landaren Garapenari buruzko Lege Proiektua, 2021eko ekainean onartua Gobernu Kontseiluaren eskutik. |

| Zb. | Eusko Legebiltzarraren ebazpena | Aurrerapenaren maila | Balorazio zehatza |
|---|---|---|---|
| **3** | Ekintzailetzaren bitartez **ekimen kulturalak** eta **arteak garatzea** ahalbidetuko duten ekimenak ezartzea. | Altua | • EJko Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak bat egin du EEP 2024ren Erakundeen Arteko Mahaian parte hartzen duten eragileekin.<br>• EEP 2024ko katalogoak Industria Kultural eta Sortzaileetan ekintzailetza sustatzeko 12 ekintza jasotzen ditu; Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (7), Innobasquek (1), Bidasoa Bizirik (1) eta Oarsoaldeak (3) sustatuta. Aurrekontua bi milioi euro ingurukoa da.<br>• Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren eta Kultura Sailaren artean abian da lankidetza Industria Kultural eta Sortzaileetan ekintzailetza sustatzeko. |
| **4** | Sektore desberdinetako enpresarien artean **esperientziak** eta **ezagutzak** partekatzea sustatzeko **eremu komunak** bultzatzea. | Altua | • EEPak ekintzailetzari laguntzeko azpiegituren eta eremuen (8 ardatz) sarea xehetasunez identifikatzen du. Ardatz honen helburua ekintzailetza-proiektuei laguntzen dieten espezializatutako eta elkar lotutako azpiegiturak izatea da, eta bertan, esperientziak eta ezagutza trukatzeko ekitaldiak eta jardunaldiak egiten dira urtero.<br>• EEParen 1. ardatzak inpaktua duten ekitaldien ildo espezifikoa du eta 18 ekitaldi baino gehiago jasotzen ditu.<br>• EEP 2024k 7 ekintza espezifiko ditu proiektuen ideiak, esperientziak edo ekintzaileen, enpresen eta zerikusia duten eragileen arteko lan egiteko moduak partekatzeko. |

| Zb. | Eusko Legebiltzarraren ebazpena | Aurrerapenaren maila | Balorazio zehatza |
|---|---|---|---|
| 5 | **Digitalizaziorako** eta **gaitasun digitalak** garatzeko ekimenak sustatzea. | Oso altua | • Digitalizazioa funtsezko abiapuntua da oinarri teknologikoa duen ekintzailetza berritzailerako.<br>• Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila da EEParen sustatzaile eta koordinatzailea, eta baita Digitalizaziorako Euskal Estrategiarena ere. Beraz, bi arloen arteko sinergiak bermatzen ditu.<br>• Planaren katalogoak 8 ekintza espezifiko jasotzen ditu ekintzailetzaren eta digitalizazioaren inguruan.<br>• 13. orriko Euskadin ekiteko lehentasunezko aukera-eremuen koadroan, digitalizazioa lehentasun estrategikoa da Industria Adimendunaren eta teknologia digitalaren arloan. |
| 6 | Industria-iraultza berria ari da gertatzen; beraz, **sektore berritzaileak** sortu eta ezartzea **sustatu** behar da. | Oso altua | • Planak 6. orrian berresten du “oinarri teknologikoa duen ekintzailetza berritzailea (NEIBT) apustu sendoa eta jarraitua dela Euskadin”.<br>• Euskadin 2013az geroztik sortu diren 779 NEIBT aktibo daude, eta 528,7 milioi euro fakturatu eta 3.422 lanpostu sortu dituzte. Gehienek babes politikoa izan dute.<br>• Enpresa horiek industriakoak (% 34), osasunekoak(% 28), energiakoak (% 24) eta beste sektore batzuetakoak dira (% 4)<br>• Gainera, 2016 eta 2020 artean, 96 NEIBT ekarri dira EAEra. |
| 7 | Ekoizpen eta kontsumo **jasangarrirako trantsizioa** sustatzen duten **ekonomia zirkularrerako** ekimenak sustatzea. | Ertaina-altua | • Ekonomia zirkularreko ekintzailetzaren inguruko 10 ekintza daude jasota EEPan. IHOBEk, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Udalek eta Garapen Agentziek sustatzen dituzte.<br>• Ekintza horien aurrekontua 1,8 milioi euro baino altuagoa da.<br>• Ekonomia zirkularra da Euskadiko RIS3ko etokizuneko sektoreetako bat, planaren 23. orrian eta arau esparruan aipatzen den moduan. |

| Zb. | Eusko Legebiltzarraren ebazpena | Aurrerapen aren maila | Balorazio zehatza |
|---|---|---|---|
| **8** | Ekintzaileen eta ETE-en **arreta**, **aholkularitza** eta **orientazio**-zerbitzuak indartzea. | Oso altua | • Lanaren seigarren ardatzak laguntzarako programak ekintzaileetara egokitzea bilatzen du eta 15,98 milioi euroko aurrekontua du.<br>• EEP 2024k 82 programa eta ekintza jasotzen ditu aholkularitza indartzera, arretarako zerbitzuetara eta ekintzaileentzako eta ETEak orientaziora bideratuta.<br>• GEM txostenak EBeko eta Espainiako batez bestekoaren gainetik eta Luxenburgoren maila berean kokatzen du EAE ekintzailetzarako inguruneari dagokionez, hein handi batean laguntza publikoei esker. |
| **9** | Enpresa-proiektu berriak sortzeko dauden **izapideak erraztea**. | Altua | • EEPren 6. ardatzean, “Izapide azkarrak” izeneko ildo estrategiko espezifikoa dago, eta “administrazioaren balizko oztopoak ezabatzea” da asmoa, 28. orriko ekintza nabarmenen atalean azaltzen den moduan.<br>• Ildo horrek PAITekin, enpresen leihatilekin, ekintzailetzarako arreta puntuekin eta izapide elektronikoekin lotutako 12 ekintza ditu. |
| **10** | **Erosketa publiko berritzailerako** politikak diseinatzea. | Ertaina | • Bosgarren ardatzean EEPak “Kontratazioa eta erosketa publikoa” izeneko ildo estrategiko espezifikoa du eta helburua da “Euskadiko Administrazio Publikoak kontratatzaile eta berrikuntzarako eta teknologiarako kontsumitzaile gisa duen gaitasuna maximizatzea, merkatu berriak garatzeko eta enpresa berriei aukerak sortzeko” (27. orria).<br>• Hainbat ekintzekin parte hartzen dute Bizkaiko Foru Aldundiak eta BEAZek, Osakidetzak eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak. |

| Zb. | Eusko Legebiltzarraren ebazpena | Aurrerapen aren maila | Balorazio zehatza |
|---|---|---|---|
| **11** | Ekintzailetzarako Euskadiren ekosistema sustatzea, **eragileen arteko loturak** hobetuz. | Altua | • Planeko 4.8 atalak EEPari “lankidetzarako esparru erreala” gisa egiten dio erreferentzia eta elkarren arteko proiektu berriak martxan jartzea nabarmentzen du.<br>• Planean jasotako 776 ekintzen % 87 bi eragile edo gehiagoren arteko hitzarmenaren bitartez gauzatu dira.<br>• Giza kapitalaren inguruko 2. ardatzean, EEP 2024k 22. orrian jasotzen du “Interakzioa” ildo espezifikoa eta helburu hau du: “ekintzaileen eta ekosistemako eragileen arteko interakzioa eta elkarrizketa sustatuko duten sareen eta egitasmoen sorreraren eta dinamizazioaren alde egitea; hain zuzen ere, proiektuak aberastea, laguntza koordinatzea eta ekosistemarekiko lotura erraztuko dituzten sareak eta egitasmoak.”<br>• Katalogoak eragileen arteko lotura-sareen 33 ekintza jasotzen ditu; 18 foroekin zerikusia dutenak eta 19 ekitaldiei buruzkoak. |
| **12** | **Ekintzailetza soziala** eta **kooperatiboa** sustatzea. | Altua | • EJko Ekonomia Sozialeko zuzendaritza erakundeen arteko mahaiko kidea da eta 8 ekintzako ekarpena egiten du. 2021erako 5,23 milioi euroko aurrekontua du.<br>• Beste eragileek sustatutako ekintzailetza kooperatiboaren inguruko beste 8 ekintza ere badira.<br>• Ekintza horiek Kooperatiben Euskal Legearen barruan sartzen dira eta hala dio: “Kooperatiben bidez, EAEko botere publikoek jarduera ekonomikoak garatzea sustatuko duten ingurune sozialen eta ekonomikoen alde egingo dute”. |
| **13** | Ekintzailetzaren sustapena **unibertsitatean**. | Altua | • EEPk gazteei zuzendutako 42 ekintza ditu.<br>• 3. ardatzak “LH eta unibertsitateak” ildo espezifikoa du. Ildo horren kolektibo nagusia ikasleak dira eta helburu nagusia “hezkuntza sistematik enpresa berriak sortzea” da.<br>• Planeko 11. orrian azaltzen diren 2024rako lehentasunezko helburuen artean, gazteek ekintzailetzan jartzen duten arreta berezia nabarmentzen da. |

| Zb. | Eusko Legebiltzarraren ebazpena | Aurrerapen aren maila | Balorazio zehatza |
|---|---|---|---|
| **14** | **Barne-ekintzailetza** sustatzea **ETEn** artean. | Altua | • 3. ardatzak “Finkatutako enpresa” ildoa du eta helburua “negozio-ildo berrien proiektuei edo finkatutako enpresen ehunduraren jarduera ekonomiko berriari laguntzea” da.<br>• Ildo horrek 19 ekintza ditu barne-ekintzailetzarekin zuzenean lotuta, hala nola Barnekintzaile berria edo SPRIren eta Eusko Jaurlaritzaren barne-ekintzailetzako ekimena.<br>• EEP 2024ren 7. orriak azaltzen du barne-ekintzailetza enpresa-ehuna eraldatzeko eta gaztetzeko, eta haien langileen artean dagoen giza kapital ekintzailea aprobetxatzeko formularik egokiena izan dela, eta hala izaten jarraitu behar duela. |
| **15** | **Lehenengo sektoreko** proposamenak sustatzea, **ekoizpen jasangarria** sustatzeko, ekoizpena bultzatzeko eta biztanleriari eusteko. | Ertaina | • Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politika Sailburuordetzak 10 ekintza ditu Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren barruan eta 3,4 euroko aurrekontua 2021erako.<br>• Ekintzen artean daude kontrataziorako jarduerak, prestakuntza, orientazioa, erreleboa, etab.<br>• 3. ardatzak “Beste sektoreak” ildoa zehazten du eta bertan sartzen dira elikadura-katea eta landa-eremua. |
| **16** | Covid-19aren ondorengo testuinguruan ekintzailetza **eraldaketa ekonomiko** eta **sozialerako egiazko abiapuntu** bihur dadin helburuak betetzea. | Altua | • Planak 8 orritan zehazten du etorkizunerako helburua “ekintzailetza kalitatezko enplegua sortzen duen ekonomia berraktibatzeko abiapuntu gisa finkatzea” dela.<br>• EEPren urteko aurrekontua (2020an onartu zen) iazko urteko batez bestekoa (2017-18-19-20an onartua) baino % 31 altuagoa da. |

| Zb. | Eusko Legebiltzarraren ebazpena | Aurrerapen aren maila | Balorazio zehatza |
|---|---|---|---|
| **17** | Plana behar bezala garatzeko mekanismoak aktibatzea. | Altua | • Gobernantzaren eredua: Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak gidatzen du plana, Erakundeen Arteko Mahaiak koordinatuta eta esku hartzen duten eragile publikoek gauzatuta.<br>• Jarraipenerako eta ebaluaziorako sistema: EEPk aginte-koadroa (39 adierazle) eta jarraipenerako urteko txostena ditu (Eusko Jaurlaritzari udaberriro igortzen zaio).<br>• Planaren jarraipenerako eta ebaluaziorako sistemak zehazten du “urteko lehenengo lauhilekoan aurreko urtean abian jarri ziren ekintzen gauzatze mailaren, jardueraren eta eraginaren jarraipena egingo da” parte hartzen duten erakunde guztien partetik. “Erakundearteko Mahaiak ariketa hori balioztatuko du”.<br>• Aipatu dugun atalaren arabera, ebaluazioa bi tresnatan oinarrituko da: planeko adierazleen aginte-koadroan, eta adierazle horien urteko neurketa jasoko eta aztertuko duen urteko Balantze Txostenean. |
| **18** | **Udalek** eta **garapenerako agentziek** egiten duten ekarpena aitortzen jarraitzea. | Altua | • EUDEL da 2024 EEParen Erakundeen Arteko Mahaiko kide berria.<br>• Planak udalen eta/edo garapen agentzien 360 ekintza jasotzen ditu.<br>• EEPan jasotzen den ekintzailetza sustatzeko tokiko aurrekontua 3,33 milioi eurokoa da (planaren aurrekontu osoaren % 4,74). |

| Zb. | Eusko Legebiltzarraren ebazpena | Aurrerapen aren maila | Balorazio zehatza |
|---|---|---|---|
| **19** | Ekintzailetzaren aldeko apustuan sakontzea, **euskal gizarte jasangarria** eta **Agenda 2030ekin** eta **GJHekin** bat egiten duena lortzeko. | Altua | • EEPan bada “Nolako ekarpena egiten diogu 2030 Agendari eta GJHei?” izena duen atal espezifikoa 17. orrian, eta bertan jasotzen du “bi esparru estrategikoak gurutzatzean sortzen diren eragina eta aukerak”.<br>• GJH guztiak EEPko ardatzetan ageri dira eta etorkizuneko “Eragin erreala eta/edo Aukera” gisa daude sailkatuta.<br>• Planeko 4.4 atalean aipatzen den moduan, “ekintzailetzaren aldeko apustua egitea mundu jasangarriagoaren aldeko apustua egitea da”.<br>• Euskal ekintzailetzaren ereduak “jasangarritasun hirukoitzaren eta eraldaketaren (digitala, berdea...) bokazio hirukoitza areagotzeko erronka” du, 8. orrian aipatzen den moduan. |

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

EUDEL
EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS